

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 13
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 14
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrukixo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GELLAO
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

EHNA TRAMITATZEKO EGUNA
Bai Euskal Herriari taldeak Euskal Herriko Naziotasun Aitorpenaren gaineko eguna antolatu du. Ekitaldia 12:00etan egingo dute udaletxe zaharren aurrean: Ikurrinari agurra, udal hautetsien adierazpenaren irakurketa... EHNA tramitatu dute egunean zehar.

KONTZERTUAK LEIZARRA MUSIKA ESKOLAN
Astelehenean, abenduak 15, hasi eta eguna bitartean kontzertuak emango dituzte Leizarra Musika Eskolako ikasleek eskolan bertan, 18:00etan.

KONTZERTUA KURTZEBARRI ESKOLAN
Leizarra Musika Eskolako musikariek kontzertua emango dute abenduaren 18an, 18:00etan, Kurtzebarri eskolan.

IPUIN KONTALARIA UDAL LIBURUTEGIAN
Jose Mari Carrere ipuin kontalaria egongo da abenduaren 18an Udal Liburutegian. 8 eta 10 urte bitarteko umeendako kontatuko ditu ipuinak, 18:00etan.

MURRUKIXO ME-REN BATZAR OROKORRA
Abenduaren 18an, eguna, batzar orokorra egingo du Murrukixo MEk. 19.00etan, Murrukixoko lokalean.

LORAMENDIREN AGENDA

'KANTU KONTARI' TXOTXONGILO EMANALDIA
Azike txotxongilo taldeak *Kantu kontari* emanaldia eskainiko die umeei astelehenean, hilak 15, 17:30ean, ludotekan.

DIAPPOSITIBA EMANALDIA
Munduko itzulia mila egunetan diapositiba emanaldia eskainiko du Eneko Etxebarrietak abenduaren 18an, 19:30ean, udaletxe zaharreen.

ORAINDELA 11URTEARETXABALETAN

Berri-zahar eguna antolatzen hasi ziren


Abenduaren 17an Berri-zahar eguna antolatu zuen Berri-zahar taldeak. Euskaldun zaharrak eta berriak elkar ezagutzea zuen helburu, eta koadrilen arteko jolasak eta afaria egin zituzten. Etxetik eraman zuen norberak afaria; taldeak ura eta ardoa jarri zituen. Hainbat urtean ospatu zuten eguna.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ezteguak"

Ezteiak. Pluralean ia beti.
—Len ezteguak iru egun irauten zeben.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 'Hiruko' / Itxaro Borda
- 'Soinujolearen semea' / Bernardo Atxaga
- 'Ugerra eta kedarra' / Sonia Gonzalez
- 'Gartxot' / Asisko, Marko, Jokin
- 'Hamar elkarrizketa' / Iker Barandiaran
- 'Euriaren mailukadak' / Txili Lauzirika
- 'Marina' / Carlos Ruiz Zafón
- 'La muñeca de Pekín' / Chun Sue
- 'El cazador de autografos' / Zadie Smith
- 'La hora del diablo' / Fernando Pessoa
- 'El dictador y la hamaca' / Daniel Pennac
- 'Gengis-Kan' / Vasili Yan
- 'Todo es eventual' / Stephen King
- 'Ese dulce mal' / Patricia Highsmith
- 'El hijo de Sandokán' / Juan Madrid
- 'El azul de la Virgen' / Tracy Chevalier
- 'La edad de hierro' / J.M. Coetzee
- 'El pie de Jaipur' / Javier Moro

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARETXAGAZETAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



ARETXABALETA
Mirari Aiastui
12an. Zorionak eta urte askotarako, lagunentzako partetik.



ARETXABALETA
Nahia Calvo
13an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, lagunentzako partetik.



ARETXABALETA
Izaskun Irure
13an. Zorionak eta urte askotarako, lagunentzako partetik.


BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67



- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Mobiliario ARENAZA



Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07 ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Herrixek nahikue argi daukola uste dozu?




AINHOA CABERO
Ikaslie



ANTONIO OSA
Jubilaue



ESTHER CABERO
Ikaslie



JOXEBA LASAGABASTER
Jubilaue



MAIER ETXEBERRIA
Langillie



JABI MARTIN
Langillie

Mitarte aldeko zonalde batzuk illun-illun egoten diela uste dot. Bestela, egi- xe esatiarren, ez naz kalien askorik ibiltten; hortan, ezin ezer esan. Hala be, ez neuke esango illun dauzenik.

Argi asko edo gutxi dauen jakituko ibilli egin biher izeten da kalien, eta neu ez naz askorik ibiltten. Hala eta be, uste dot dauena bai- ño argi gutxiau, behintzet, ez dalá komeni.


Uste dot argi faltarik ez daue- la, baiñe, horreik argixok ez daukie inddar haundirik eta emuten dauen argixe ez da nahikue izeten. Durana kale- kuek, adibidez, naranja kolo- reko argitxue emuten daue.

Ez. Araba ibilbidie, adibi- dez, desastre hutsa da, tune- la emuten dau, ixex ez dau argirik be. Gaiñera, jene- ralien esango neuke nahi- kue gaizki argittutako herrixue dala gurie.

Bai, uste dot nahikue dala. Hala eta be, atenziñue emu- ten dau gabetan ixex argi barik ibiltten garela. Orokorrien ez daukogu argi askorik. Edo- zelan be, neu, daukogune- kin konforme.

Uste dot baietz. Orokorrien argi nahikue dauela pen- tsetan jat. Oin, gaiñera, Gabonak datozela eta herri- xek argittasun politta dau- ko. Hortan, ez neuke argi gehixaurik jarriko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK APARKALEKUA HUTSIK Gero eta jende gehiago joaten da Urkulura asteburuetan. Azkenaldian, gainera, kanpotarrak autobu- sean heltzen dira urtegiara. Jakina da Urkuluko urtegia ez dagoela ger- tatuta asteburuko auto uholdea jasotzeko, eta are gutxiago, autobu- sak jasotzeko. Bainuetxeko industrialdean aparkaleku egokia jarri zuten horretarako, baina asteburu gehienetan hutsik egoten da. /A.L.

ETABARRUAN...

KULTURA /04

Erakusleihu Lehiaketa

Erakusleihu Lehiaketa antola- tu du Kultura Sailak. Eraku- sleihu dotorenek saria izango dute.

WEBGUNEAK /04

Loramendi EEK webgunea du

Loramendi EEK ere badu webgu- nea. Oraintsu jarri dute eta poliki-poliki joan- go dira osatzen.

KIROLAK /06

Bixente Etxeandiari omenaldia

Jose Mari Arkauz- en ekimenez, ohorezko ligako gazteek omenaldia egingo diote Bi- xente Etxeandiari.

ASTEKODATUA

460

EURO BANATUKO DITUZTE ERAKUSLEIHO LEHIAKETAN

Udaleko Kultura batzordeak 460 euro banatuko ditu Gabonetako Erakusleihoen Lehiaketako sari banaketan. Irabazleari 210 euro emango dizkiote, bigarrenari 150 euro eta hirugarrenari 100 euro.

BESTEKEKESANA


“ Arrasateko Udalean aldaketa bat egon da, eta orain informazio falta dago. Guk, Gazte Kontseilukook erabaki

duguna da, udaletxeko politikariena joatea eta Gazte Kontseilua zer den azaltzea. Horrekin gura duguna da, politikariak jakitea zeintzuk diren Gazte Kontseiluaren funtzioak. Eta batez ere, garbi utzi gura diegu, Gaztetxea eta Gazte Kontseilua desberdinak direla.

Gazte Kontseilua herriko hainbat taldek osatzen dute gaur egun. Besteak beste, Gaztetxeak, AEDK gazteek, Besaide Mendi Taldekoek, Gizaizpi Alaik, Txatxillipurdik eta Arraska taldeak. Hala ere, talde zabala dela jakinarazi gura dugu, eta hortaz, herriko edozein taldek parte hartzeko ateak zabal-zabalik ditugu.

IRATI PAGOAGA
Arrasate Irratia/03-12-09

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Ohikoa, baina, ez normala

Pasa den aste bukaera luzean, berriro ere, hamasei bat euskaldu- nek beren bizia utzi dute errepideetan.

Tamaina horretako galerak ohikoa bilakatzen ari bazaizki- gu ere, ulergaitza dirudi, ustez, gero eta errepide eta ibilgailu hobeak ditugun garai honetan hildakoen kopuruak gora egitea. Istri- puak oro har, era guztietakoak badaude ere, gehiegizko abiadu- raren ondorioz izaten dira gehien- tsuenak. Hala, agintari, polizia edo dena delakoek, arazo horri “aurre” egiteko isunak gogor- tzen dituzte urtetik urtera. Bueno, era horretako neurriak gaizki ez badaude ere, ironikoa deritzot, puntuan behin isunak jartzen ari diren bitartean, errepideetan gaintitu ezin daitezkeen abiadura tasei gaina hartzeko gaitasuna duten ibilgailuak sortzen eta saltzen uzteari. Ironikoa. Nire eskema- tan horratik ez da halakorik sartzen. Auto egileei abiadura-

ren zenbateko muga gutxitu eta finkatuko balitzaie gutxienez, gauzak bestelakoak izango liriteke.

Automobila berez, asmaki- zun ona bada. Mundiala da. Eta hobetzea ere ezinbestekoa dela begi bistan dago. Baina, enpresa ezberdinak, nor baino nor, nork gehiago saldu lehian arituz gero, alferrik gabilta. Eta okerra- goa oraindik guzti hori onartzen denean. Beste gauza asko eta askoren moduan –denak ez esatearren- ibilgai- luen kontuak ere esku artetik ihes

egin digu, kontsumoaren anparoan punta-puntako diru iturri bilakatuz. Dezenteko dirutza mugiarazten duen objektu bilakatu dira merka- tuan. Ez nuen alferrik entzun lehengo batean, irratian, automobilen salmentak irauten duen bitartean ekonomia ondo doala. Hortaz, dena ondo, ala? Begiak itxita jarraituko dugu. Bien bitartean, bide bazterre- tan argi eta kontu handiz ibili beharko dugu.

“Ulergaitza dirudi, ustez, gero eta errepide eta ibilgailu hobeak ditugun garai honetan hildakoen kopuruak gora egitea”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



GABONAK/ Urtero antolatzen du Udaleko Kultura Sailak, herria girotzeko asmoarekin

Abian da herriko erakusleihen dotoreenak saritzeko lehiaketa

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko dotore apaindu dituzte herriko denda gehienak. Izan ere, Gabonak gertu ditugu, eta Udaleko Kultura Sailak Erakusleihen Lehiaketa antolatu du, Gabonak girotzeko asmoz. Joan zen astelehenean hasi eta abenduaren 31 bitartean izango da lehiaketa.

Urtero antolatzen du Udaleko Kultura Sailak Erakusleihen Lehiaketa. Gabonak girotzea du helburu, eta dendari gehienak saiatzen dira erakusleihen dotore jartzen: koloretako argiak, jaiotzak, Gabonetako zuhaitzak,

opariak... Irudimena jarri behar da lanean erakusleihen dotoreena izateko.

IRUDIMENA ETA ORIGINALTASUNA

Aretxabaletako denda guztiek har dezakete parte. Hala ere, %60k bakarrik hartzen dute parte, Inma Miguel kultura teknikariaren esanetan. Abenduaren 8an hasi eta 31 bitartean izan beharko dituzte dendak apainduta; jaiegunetan eta jai bezperetan 21:00ak arte erakusleihen argizatuta egotea komeni dela aipatu dute Kultura Saileko arduradunak. Irudimena, originaltasuna eta Gabonetako mezua emateko modua hartuko ditu epaimahaiak kontuan saria

banatzeko orduan. Erakusleihenek, gainera, dendako ohiko produktuekin egon beharko dute apainduta.

Hiru sari banatuko dituzte 2004ko urtarrilaren 6a baino lehen: lehenengoarendako 210 euro eta plaka, bigarrenarendako 150 euro eta hirugarrenarendako 100 euro. Epaimahaiak sariak hutsik uzteko ahalmena izango du, hala iritiz gero. Kultura batzordeko kideek eta iritzia emateko izendatutako lagunek osatuko dute epaimahai. Iaz, herritarrek ere izan zuten aukera iritzia emateko, Poxpolin parkean botoa emateko jarritako kaxetan. Aurten oraindik ez dute erabaki jarriko dituzten edo ez.

Bromak eta bromak

Broma kontuekin hasiko naz; izen be, astelehenean ETB-1en emuten dauien *Kuxkuxeroak* saiuen aretxabaletar bati egindako bromie bota euien. Orly tabernan izen zien grabetan, eta tabernako langillie dan-Iraia Elorzari edarra sakatu eutzien. Bromiekin hasi baiñe umore txarrez eta hasarratute bukatu euen gure neskiek. Ez naz harritzen, egin eutzienak ikusitte...


Dotore dazanak, barriz, gure herriko dendak die. Arbolatxo bat hemen, bolatxo batzuk han... Udalak apaindu dituen arbolak be argixekin daz martitzenaz gero, eta Gabon usaintxue hartzen hasi gara. Hala eta be aurten, argitten behintzet ez dau asko gastauko Udalak, lau arbolek gastetan dauiena, horretxei bakarrik jarri dutzie-eta argixek.

M. J. Aretxaga

Loramendi EEk webgunea du

Orain dela hilabete inguru jarri zuen abian gunea: <http://comunidades.kzgunea.net/loramendi>. KZGunearen laguntza izan du; honek Udalarari eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zien proiektua, eta onartu egin zioten.

Loramendiren historia eta konposaketa, albisteak eta beste hainbat kontu dakartza webguneak. Azken urteotako Aretxabaletako hainbat argazki ere baditu. Dena dela, poliki-poliki osatzen joateko asmoa daukate.



Poliki-poliki osatzen joango dira webguneko informazioa Loramendiko kideak.

LABUR

Ikasle onenei emandako saria jaso du Miren Igartuak

Gipuzkoako karrera bakoitzeko ikaslerik onenak saritu ditu oraintsu Kutxak. Eta aretxabaletar bat dago sarituen artean: Miren Igartua, hain zuzen. Haur Hezkuntzako ikasketak burutu zituen iaz Mirenek, eta orain 1.050 euroko saria heldu zaio.

Bigarren saria jaso du Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak

Bigarren saria jaso du Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan. Orkestrei dagokien sailean lehiatu zen, goreneko mailan, eta Sabadellgo Kontserbatorioko Orkestraren atzetik geratu zen Juanjo Orobengoak zuzentzen duen taldea.

Aretxabaletan bizitako lagun bat hil zen istripuan

Abenduaren 6an Araban izandako istripu baten Pedro Alonso Aretxabaletan bizitako 48 urteko gizona hil zen. Pedro auto batek harrapatu zuen istripua izandako beste bati laguntzera zihoanean. Gasteizen bizi bazen ere hileta elizkizuna Aretxabaletan egin zioten martitzenean.



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Zubia oinetakoak

zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak


Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

ORLY

Herrriko plaza z/g ARETXABALETA

AZKARATE AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

A black and white photograph of a woman standing in a living room. She is wearing a white and black ski jacket, dark pants, and ski boots. She is holding a pair of skis vertically in front of her and two ski poles. The room contains a sofa with a plaid blanket, a coffee table, and several wrapped gifts on the floor. A snowflake icon is in the top left corner.

Badago ez daukagun opari bat

elurra

SPORTLAND
FORUM SHOPS

Sportland Arrasate
Garibai Etorbidea, 2-6

KIROLA ZEURE ESKURA

FUTBOLA

Ohorezko ligako gazteek omenaldia egingo diote bihar Bixente Etxeandia presidenteari

Azken urteetan Bixente Etxeandiak egindako lana goraiatu eta eskertu gura dute ohorezko ligan jokatzeko duten gazteek, eta batez ere, Jose Mari Arkauzek.

AMAGOIA LASAGABASTER

Jose Mari Arkauzek argi du UDAko presidente Bixente Etxeandiak omenaldia merezi duela. Jose Mari ohorezko ligan jotzen duten gazteen taldeko ordezkaria da; hortaz, domekako omenaldia horien eskutik egingo diote Bixenterri. Egun berezia gertatu dute.

Horrenbeste urtean egindako lana eskertzeko omenaldia egingo diote bihar UDAko presidente Bixente Etxeandiari. Jose Mari Arkauz ohorezko ligako gazteen ordezkariaren ekimenez, egitarau berezia gertatu dute.

EGITARAUA

Omenaldi ekitaldia 17:00ak inguruan hasiko dute, lehenengo mailako gazteek partidua amaitzen dutenean. Orduan, futbolzelaian erdian ohorezko pasilloa egingo diote ongietorria Bixente Etxeandiari. Akordeoi eta pandero jotzaileen musikarekin alaituta, garaikurra eta lore sorta emango dizkiote UDAko presidenteari. Horrez gain, Mendiolako erretegiaren bazkari ederra opari egingo diote. Jose Mariren esanetan, ezustekoren bat edo beste ere egongo da omenaldi ekitaldian. Bukatzeko, ohorezko ligako partidua jokatu dute gazteek.



Bixente Etxeandiak bederatzi urte bete ditu UDAko presidente.

EGUN BEREZIA

Jose Marik gura du lagun arteko festa izatea biharko eguna. Horretarako, zotz egiteko ohiko txuletak

egon beharrean, herriko dende emandako hiru otar jarri dituzte. Herritar guztiak daude gonbidatuta ekitaldian parte hartzera.

BIXENTE ETXEANDIAREN IBILBIDE PROFESIONALA

FUTBOL JOKALARIA

- Bixente Etxeandia Arregi UDAN hasi zen futboleko jokatzeko, 18 urterekin, 1949-50 denboraldian. 1952ra arte jokatu zuen Aretxabaleko taldean. Handik, Deportivo Alaves taldera joan zen eta 1957ra arte hantxe jokatu zuen. Duda barik, *babazorroen* taldean bizi izan zituen garairik onenak Bixentek. 1954-55 denboraldian 22 gol sartu zituen lehenengo mailan. Gainera, denborali bitan taldean gol gehien sartu zituen jokalaria izan zen. 1957-58an, berriz, zorte txarra izan eta denboraldi batez futboleko kanpo utzi zuen lesioa izan zuen. Hala ere, hurrengo urtean Realak fitxatu zuen. 1059tik 1960ra bitartean, bigarren mailan zegoen Huelvako Recreativo taldean jokatu zuen. Gerora, Sestaon, Mirandesen eta Club de Vitorian ibili zen futboleko, besteak beste.

ENTRENATZAILEA

- Futbola utzi eta gero, Bixente Etxeandiak entrenatzaile lanak egin zituen. Eta lanbide horretan ere maila ona erakutsi zuen. Hain zuzen ere, 1968an atera zuen entrenatzaile titulua eta orduz gero hainbat mailatan ibili zen taldeak zuzentzen. Besteak beste, Bergaran (hirugarren mailan), Mondran (hirugarren mailan), Alavesen (erregionalean), Elorrioren (erregionalean) eta Elgoibarren ibili zen taldeak zuzentzen.

Bixentek, gainera, Deportivo Alaveserako ikuskatzaile lanak egin ditu hainbat denboralditan.

PRESIDENTEA

- 1994a ezkerreko UDA elkartearen presidentea da Bixente. Makinabat lan egin ditu futbolaren eta herriko futbolarien alde. Azken baten, 54 urte eskaini dizkio kirol horri. Eta oraindik gelditzen zaizkionak...

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA


BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta




Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza


Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA




TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea: 

Eguazteno,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 12a / 149. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Domekan inauguratuko dute Apotzagako parroikia, bi urteko berritze lanak bukatuta

MIRARI ALTUBE

Bukatu dituzte Apotzagako parrokiako zaharberitze lanak. Urte bi iraun dute eta 260 mila euroko kostua izan dute. Kanpoaldetik eta barrualdetik zeukan konpondu beharra, eta halaxe egin dute. Domekan izango dute inaugurazio ekitaldia, 12:30ean.

Parrokia barik egon dira Apotzaga auzoan azken urtean. Izan ere, zaharberitze lanak egin dituzte bai barrualdean, bai kanpoaldean. Dagoeneko bukatu dituzte lanok eta dotore asko utzi dute; orain, inaugurazio ekitaldia besterik ez da falta.

BARRUALDEA ETA KANPOALDEA

Egoera eskasean zegoen Apotzagako eliza. Aspaldian konponketa lanik egin barik teilatua behera zetorkion eta barrualdean hezetasunaren erruz hainbat arazo zeuden. "Berritze ona behar zuen barrutik eta kanpo aldea ere hondatzen hasita zeukan", dio Jose Ramon Beitia Apotzagako auzotarrak.

Elizaren hormak pikatu egin dituzte, eta zarpiatu; gangako

harriak garbitu, argiztapena berritu, egurrezko lurzorua garbitu eta zati txarrenak berritu egin dituzte; erretaula leundu eta sitsen eta pipien kontra babestu dituzte, eta jarlekuak konpondu.

Kanpoaldeari dagokionez guztiz berritu dute teilatua. Euri urari hodiak jarri dizkiote eta lau farola jarri dituzte elizaren lau alboetan. Baranda berria ere jarri dute, eta elizaren inguruan belarra landatu dute metro eta erdi inguruko pasilloa utzita erdian.

260.000 EUROKO AURREKONTUA

Urte bi iraun dute zaharberitze lanek, eta 260 mila euroko gastua izan dute. Auzotarrek dirua jarri dute, baina gastu handi horri aurre egiteko erakundeen laguntza behar izan dute: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gotzaitegiak eta Eskoriatzako Udalak lagundu diete, hain zuzen.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Gotiko eta erromaniko arteetako da Apotzagako parroikia. Hala uste du, behintzat, Jose Ramon Beitia. San Migel goiaingeruaren irudia dauka aldare inguruan, eta hura da, hain zuzen, auzoko zaindaria. Domekan, hila-



Barrualdea konpontzerakoan kanpoaldea ere txukundu gura izan dute, eta beste itxura bat hartu du Apotzagako parrokiak.

ren 14an, egingo dute berritze osteko inaugurazio ekitaldia, 12:30ean izango da, eta Joan Maria Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzaina etorriko da meza esate-

ra: "Gozaina bera etorriko dela esan digute, eta beste aldaketarik ez bada, behintzat, hemen izango dugu". Mezaren ostean bazkaria egingo dute Auzo-etxe elkar-

tean. Apotzagan jaiotakoak, bertan bizi direnak edo auzoarekin harremanen bat dutenak daude gonbidatuta, eta oraindik zabalik dago izena emateko epea.



Euskara aldarrikatuz Arizmendin

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko eguna ospatu zen munduan. Eusko Ikaskuntzaren sorrerarekin lotuta 1949ko 3an ospatu zen lehenengo Euskararen eguna. Euskaraz Bizi proiektuaren bitartez Arizmendi Ikastolak euskararen normalkuntzan aurrera pausoak ematea du helburu. Joan den astean euskara aitzakia hartuta ondo baino hobeto pasatu zuten ikastolako ikasleek. Euskal dantzak, musika, graffitiak, kirola eta antzerkia egin zuten *Euskara jalgi hadi mundura* lelopean.

LABUR

Lau eskoriatzar egon ziren Aita Menniko gaixoekin

Abenduaren 5ean borondatez lan egiten dutenen nazioarteko eguna izan zen. Aita Menni ospitalean eskualdeko gaixoekin ospatu gura izan zuten aipatutako eguna, eta bazkaria egin zuten lehenengo eta dantzaldia gero. Arrasateko, Legazpiko eta Eibarko borondatez lan egiten duten lagunekin batera Eskoriatzako osasun pastoraltzan jarduten duten lau lagun egon ziren. Egun polita pasatu zuten guztiek, bai borondatez lagun egiten dutenek, bai gaixoez.

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORPENA

Bai Euskal Herriari taldeak EHNA egiteko aukera emango du etzi

AMAGOIA LASAGABASTER

Debagoieneko gainerako herrietan egin den moduan, Eskoriatzan ere Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena egiteko mugimendua jarri du martxan Bai Euskal Herriari taldeak. Oraingo domekan egingo dute, hain justu, EHNA tramitatzeko ekitaldia herrian.

Prentsaurrekoa eman zuen Bai Euskal Herriari taldeak martitzenean, hilak 9. Taldea osatzen duten lagunekin batera EHNari atxikimendua eman dioten taldeetako ordezkariak egon ziren. Prentsaurrekoan aditzera eman zuten oraingo domekan EHNA tramitatzeko aukera egongo dela. Bai Euskal Herriari taldekoek herritar guztien parte-hartzea bultzatu gura dute.

EGITARAUA

Bai Euskal Herriari taldekoek festa giroan antolatu dute EHNA tramitatzeko eguna. Goizean, txistulariekin kalejira egin ondoren, txalapartariak eta dantzariak saioa egingo dute plazan. Ondoren, garai bateko sokatira taldearen eskutik sokatira desafioa egingo dute kontzejuean. Azkenik, arratsaldean gaztaina beroak banatuko dituzte. Horrez gain, noski, egun osoan EHNA egiteko maña jarriko dute uda-



Prentsaurrekoan, Bai Euskal Herriari taldeko kideez gain, EHNari atxikimendua eman dioten taldeetako ordezkariak batu ziren.

letzeko osoko bilkuren aretoan. EHNA egin gura dutenek hiru argazki, erroldaren agiria eta 15 euro aurkeztu beharko dituzte.

ATXIKIMENDUAK

Orain arte, EHNA mugimenduari Udalak eta herriko hamar talde edo elkartek eman diote

atxikimendua. Talde politikoaren artean, berriz, EAJ, EA eta Kontzejupe plataformakoek eman diote babesba EHNari.

TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi ikastola-Jose Arana.....	943 77 20 25
Arizmendi ikastola-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetzak.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Dejak.....	112

OHARRAK

EHNA TRAMITATZEKO DEIA

Etzi, hilak 14, Bai Euskal Herriari taldeak bultzatuta EHNA tramitatzeko kanpaina egingo da Eskoriatzan. Egun horretan osoko bilkuren aretoa zabalik egongo da Euskal Nortasun Aitorpena egiteko.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Astelehenean, hilak 15, Amuska emakume taldeak antolatutako sukaldaritza ikastaroa hasiko da, 19:00etan, erretiratuen egoitzako sukaldean.

**EDURNE**ESTETIKA
ZENTROA

Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoa
ordutan konponduko dugu...

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA


Villar

Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

**bedardenda**

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastanadui auzoa 42
20540 Eskoriatza
GipuzkoaTel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

ERRETRATUZHARRA

Santa Luzia
eguneko
ospakizunak

Bihar, abenduak 13, Santa Luzia eguna ospatuko dute jostunek. Oraindik ospakizun handiak egiten dituzte, edo hori entzuten da behintzat, baina orratzarekin eta hariarekin lan egiten duten joskinak gero eta gutxiago dira.

Erretratuan agertzen direnak, bai, horiek bai benetako joskinak. 1952. urtean Maulandako taberna aurrean ateratakoa da. Josteko makina aurrean dagoena Teresita Arroiabe da, Maulandako joskina. Maulandan bertan, taberna gainean, zeukan josteko gela eta hantxe batzen zen bederatzi bat ikaslerekin. "Maringoak, Gatzagakoak... Arabako ikasle bat ere izan nuen" dio Teresitak: "Lehen, oraingo aldean, asko josten genuen; izan ere, lehen ez zen egindako arroparik saltzen, eta Eskoriatzatik, Aretxabaletatik eta beste hainbat lekutatik izaten genituen eskaerak. Zarimuzko abadeari berari sotana neuk josi nion. Orain, oster, ezin topatu oihalik jantziak egiteko".

Gainerako joskinek bezala, taldetxo honek ere Santa Luzia zaindariaren eguna behar den bezala ospatu gura

izaten zuen. Dorletako santutegira joaten ziren lehenik, han Santa Luziaren irudia dago-eta. Meza entzun eta bueltan pilota partiduak jokatzen zituzten Gatzagako arkupeetan. "Gogoan dut urte baten lepoa mugitu ezinik geratu nintzela pilotari gaizki emanda", dio Teresitak. Gero Maulan-

dako tabernan izaten zuten merienda; merienda ederra, gainera: "Jaki benetan goxoak gertatzen genituen; behin, izugarritzko lana zeukan pastela egin genuen". Ez hori bakarrik, merienda ostean, akordeoia jotzen zuen Teresitaren anaiak, eta dantzaldi bikaina egiten zuten tabernan egoten

ziren bezeroek lagunduta.

Argazkiko neskak, ezkerretik hasita: Bittori Errasti, Amparo Gorostiza, Teresita Arroiabe, Timotea Segura eta Ana Mari Gesalaga.

Argazkia eta informazioa: Teresita Arroiabe



**Goienkaria-k
hitzordua
egin nahi du
zurekin
ASTELEHENERO**

Egubakoitzez gain,
astelehenetan ere badugu

- ✓ zer esan,
- ✓ zer erakutsi,
- ✓ zer proposatu.

Zure
astelehenak... **gurekin**

Goienkaria
ASTELEHENERO

• Zer eskaintzen dizu Asteleheneko Goienkariak?

- Gure eskualdean asteburuan gertatutakoaren informazioa inork baino lehen eta inork baino sakonago.
- Asteazken zehar albiste izango denaren aurrerapena eta hitzorduen berri.
- Gure enpresen gaineko informazioa.
- Zure herriko kirol taldeen kronikak, emaitzak, sailkapenak...
- Ume eta gaztetxoaren Eskola Kirolaren gaineko informazioa.
- Asteburuko kirol ekitaldiekin egindako argazki-bilduma.
- Gure kirol talde nagusiak (Real, Athletic...) Debagoienetik ikusita.
- Debagoienean antolatzen diren kultur ekitaldien kronikak.
- Zerbitzu-informazioa: asteburuan jaiotako argazkiak, zorion agurrak, eskelak, intereseko telefonoak, lan poltsa, inbiliarriak...
- Lehiaketak, denbora-pasak...



0. alea LASTER KALEAN



Gemes
estetika

Ilargi plaza 1 ARETXABALETA
943 79 99 18

GABON ZORIONTSUAK IGARO ETA URTE BERRI ON!

Aitzorrotz elektronika

Alboka gazte moda

Ana's jantzi denda

Angelines autozerbitzua

Aretxabaleta iturgintza

Asensio jantzi denda

Begiondo optika

Calderon Soledad autozerbitz.

Errasti kioskoa

Errekabarren fruta denda

Etxabe harategia

Gantxegi harategia

Gemes edertze aretoa

Gertu janari prestatuak

Haurrak umeen moda

Ibarra estankoa

Iber loteria

Imanol janari denda

Iriarte umeen denda

Irudi ileapaindegia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Zure herriko dendetan erosi eta sariak irabaz ditzakezu!

Lehiaketa 2003ko abenduaren 1etik 20ra izango da.

Jauregi okindegia

Jon harategia

Josu harategia

Kixkur ileapaindegia

L-10 ileapaindegia

La Brasileña akeita etxea

Lasai masajeak

Leibar arraindegia

Leintz mertzeria

Leniz liburudenda

Mari Karmen oinetakoak

Maritxu mertzeria

Martin erlojudenda

Miren Zuriñe bitxitegia

Nerian loradenda

Photosynthesis argazkilaritza

Txilarra dietetika

Zainduz osasuna/fitnessa

Zare artegintza

Zubia oinetakoak

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure
etxearen
osasun
onerako

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA



AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza

PINTURAS
ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •



L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABAleta
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABAleta

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenumendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



Pintura eta dekorazioa

Simbert

San Migel 13, behea C
ARETXABAleta
609 143 119



ARETXABAleta
ITURGINTZA

Lezama zentru komertziala 16
Tel.: 943 79 17 53
ARETXABAleta

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABAleta

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABAleta

943 793 187



Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA


Apotzagako parrokiaren inauguratze ekitaldia /08

EHNA

EHNA tramitatzeko aukera udaletxean /09

LEINTZ GATZAGA

Santa Luzia eguna irudi zaharrean /10



ERAKUSLEIHO
DOTOREENEI
SARIAK